



BIME PRO: URTERIK LATZENEAN, MUSIKAREN INDUSTRIA BILDU EGINGO DA ETORKIZUNARI #INOIZBAINOGERTUAGO AURRE EGITEKO

Izen gehiago ditugu baieztatuta: Jean-Michel Jarre, musika elektronikoaren aitzindaria; Tini abeslari argentinarra –Violetaren papera egiteagatik da ezaguna eta, gaur egun, musika urbanoaren erreferente da–; Alexandra Lioutikoff, Universal Music Publishing Group LATAM eta USA Latin enpresako presidentea; James King, European Festivals-eko CEOa AEG Presents enpresan; eta Nacho Vegas kantautorea.

Biltzarrean, Music Supervisors-en lehen topaketa egingo da, ikus-entzunezko sektorerako musika hautatzen duten profesionalak ezagutzeko

Aurten ere, **BIME PRO Biltzar Profesionala** izango da Bilbon; mundu osoko musikaren industriako profesionalak biltzen dira bertan eta, aurten, Covid-19aren ondorioz sektorea geldiarazita dagoen honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da. Musikaren industriak urtean 50.000 milioi dolar inguru mugitzen ditu mundu osoan, eta Estatuan BPGaren % 0,5 osatzen du; hori horrela dela, bereziki zigortutako sektorea izaten ari da eta une garrantzitsu honetan profesionalek #inoizbainogertuago egon behar dute.

Formatu desberdinak, espazio ugari.

Egungo osasun-neurriak direla-eta, aurten topaketa hibridoa izango da, hau da, **hitzaldi presentzialak eta online hitzaldiak uztartuko dira urriaren 26an, 27an, 28an eta 29an. Euskalduna jauregia** izango da programa presentzialaren egoitza, baina eduki guztia plataforma batetik jarraitzeko aukera ere izango da; plataforma hori bime.net webgunean dago, gaurtik aurrera erabilgarri. Azken hilabeteetan musikak sorrarazi duen interesari erantzunez, eta ezagutza eta iritziak partekatzeko asmoz, lehen aldiz, jende guztiari, oro har, edukiak doan eskuratzeko aukera ere eskainiko du biltzarrak, [aldez aurretik izena emanda](#). Euskalduna jauregiaren gain, **Bilboko espazioen sare zabal batean** (jatetxeak, saltokiak, museoak...) ere bilduko dira parte-hartzaileak, eta sektorearen etorkizuna baldintzatuko duten erabakietako asko hartuko diren bilera eta solasaldien lekuko izango dira.

8. edizio honetan programa bikaina izango da: artista ezagunekin batera, profesional handiak ere etorriko dira; profesional horiek jendearentzat, oro har,



oso ezagunak ez diren arren, haien jarduna funtsezkoa da musikaren gaur egungo panoraman. Lehendik iragarri genituen izenei nazioartean ospe handia duten beste batzuk gehitu dizkiegu: **Jean-Michel Jarre**, musika elektronikoaren arloko konpositore ezagun eta produktore frantsesa; **Tini Stoessel** aktore eta abeslari argentinarra, gaztea den arren ibilbide luzea egin duena Disney etxearentzat **Violetta** gaztearen papera egin zuenetik gaur egun musika urbanoaren erreferente bihurtu arte; **Alexandra Lioutikoff**, Universal Music Publishing Group LATAM eta USA Latin enpresako presidentea; **James King**, European Festivals-en CEOa AEG Presents enpresan eta, besteak beste, BST Hyde Park edo All Points East jaialdien arduraduna; eta **Nacho Vegas** musikari eta idazlea, Estatuko eta Latinoamerikako gaur egungo kantautore garrantzitsuenetako bat. BIMEk Latinoamerikako industriarekiko konpromisoa berretsi du, **Mexiko, Brasil, Argentina, Txile, Kolonia, Peru** eta **Venezuelako** ordezkartzeekin, eta Atlantikoaren bi ertzen arteko zubi izango da berriro ere AMCS musikaren industriako feria profesionalen topaketa iberoamerikarraren 2. edizioarekin. Ozeanoaren beste aldeko parte-hartzaileak ere izango ditugu: **Chucky García**, Kolonbiako Rock al Parque jaialdiko programatzaile artistikoa; **Itzel González**, Mexikoko Vive Latino jaialdi erreferenteko *bookerra* eta Ocesa entretenimendu-enpresa erraldoiaren partaidea; edo **José E. Rodríguez**, Peruko Selvámonos jaialdiaren sortzaileetako bat. Eta laster emango ditugu aditzera izen gehiago ere.

Music Supervisors: musika pantailera iritsi da.

BIME PROren aurtengo edizioan industriaren gaur egungo panoraman garrantzi handia duen ekitaldi bat izango da: **Music Supervisor**en lehen topaketa. Figura hori nahiko berria da, baina azkenaldian izandako ikus-entzunezkoen gorakada dela-eta, funtsezko bihurtu da musikaren industriaren barruan; dena den, figura ezezagunenetako bat ere bada, baita sektoreko profesionalen artean ere. Topaketa horretan, **filmetan, telebistako serieetan, publizitatean edo bideo-jokoetan** entzuten dugun musika hautatzen eta lizentziatzen duten adituak ezagutuko ditugu. Panel, tailer eta speedmeeting-en bitartez egingo dugu, aukerez betetako esparru berri horri buruz sakontasunez ikasi ahal izateko. **Juanto Tello** (La casa de papel, Vis a Vis, El embarcadero...), **Omar Tenani** (La Peste) eta **Lucía Pérez Mozas** (Amar es para siempre, El secreto de puente viejo) dira baieztatuta ditugun lehen izenak.

Gaikako aretoak: espazio birtual bat interes-arlo bakoitzerako.

BIME PROren edizio hau profesionalentzako interesekoak diren arlo guztiek espazio bat izan dezaten pentsatuta dago, dela online, dela presentzialki. Ekitaldi presentzialak Euskalduna jauregian egingo dira eta, horiekin batera,



www.bime.net webgunean dagoen online plataforman hainbat areto egongo dira, gai bakoitzak bere espazio birtual propioa izan dezan. Biltzarra Europatik eta Amerikatik jarraituko dutenez, topaketa asko penintsulako arratsaldeko ordutegian izango dira, Latinoamerikako profesionalak ere parte hartzeko aukera izan dezaten; izan ere, aurten ezin izango baitute bidaiatu, baina beren herrialdeetatik parte hartuko dute, plataforman konektatuta.

BIME PRO aretoan topaketak, hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira, askotariko gaiet buruzkoak: *“Mujeres: Primera línea de Covid19 (Emakumeak: Covid-19aren lehen lerroan)”*, **Cristina Morales** (Narratibako Sari Nazionala, 2019, “Lectura fácil” lanarengatik) eta **Anna Pacheco** idazleekin; *“Seguridad y Riesgos en la celebración de Espectáculos Públicos, desde la nueva realidad del Covid-19 (Segurtasuna eta arriskuak ikuskizun publikoak egitean, Covid-19aren errealitate berritik)”*, **Ana Alonso, Raúl Valera** eta **Soco Collado** izanik hizlari; *“Política y legislación para la inteligencia artificial (Adimen artifizialerako politika eta legeak)”*, **Barry Scannel** eta **Patricia Varas** partaideekin; *“Nuevos retos y oportunidades para los artistas (Erronka eta aukera berriak artistentzat)”*, **Luis Mendo, Sergio Ramos, Fernando Prados** eta **Elena Barros**ekin; *“Chequeo jurídico para sellos y oficinas 360 (Txeko juridikoa zigilu eta bulegoetarako 360)”*, **Manuel Ángel López**ekin. Bestek beste, honako gai hauen gainean hausnartzera gonbidatuko gaituzte: kontsumo-ohitura berriak, negozio-eredu berritzaileak, ikus-entzunezko sormena, musika-psikologia... Halaber, espazio horretan ezagutuko dugu **Keychange** sarea, 12 herrialdetan bazkideak dituen proiektu europarra, musikaren industrian genero-oreka lortzeko lan egiten duena; eta espazio hori izango da Iberoamerikako jaialdien topagune, **BIME PRO Fests** programazio bereziarekin. Gainera, Covid-19ak musikaren industrian izan duen eragina zorrotz aztertuko dugu, ikuspegi eraikitzaile batetik begiratuta betiere, sektorean izan den urterik konplexuenetako batean.

BIME TECH aretoan teknikariak, zerbitzu-enpresak eta profesionalak bilduko dira, eta tamaina guztietako jaialdietarako soluzioak aurkeztuko dituzte. Solasaldiak eta hitzaldiak aditu onenekin, eta erakustokiak produktu teknologiko abangoardistenekin eta tresna berritzaileekin, lana erraztu eta negozio-aukerak biderkatzeko.

BIME CAMPUS aretoko programa prestakuntzakoa izango da, musikaren industrian lan egin nahi duten ikasle gazteei zuzenduta baina baita karrera birbideratu nahi duten eta sektorean hasi nahi duten profesionalak ere. Programa horri dagokionez, gaur zabaldu da CAMPUS+ deialdia, lau eguneko ikastaldian parte hartzeko aukera ematen duten 18 beketako bat lortzeko.



BIME START UP! aretoa berrikuntzarako eta ekintzailtzarako gunea izango da: teknologia berriak, APPak, bideo-jokoak eta berrikuntza teknologiko eta kontzeptualak musikaren eta kultura-industrien munduan. Inbertitzaileen eta ekintzaileen arteko funtsezko topaketa, **sorkuntza-industrietako startup-ak indartzeko**. Horretaz gain, **Startup Competition** lehiaketaren beste edizio bat ere izango da; lehiaketa horretan, ekintzailtza-proiektuek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte nazioarteko adituek osatutako epaimahai baten aurrean.

Gaurtik aurrera eman daiteke izena biltzarrean parte hartzeko, modalitate guztietarako: Sarrera librea jendearentzat, oro har; online sarrera edo online sarrera gehi presentziala, profesionalentzat; eta Campus deialdia. Sarrera kopurua mugatua da, eta www.bime.net webgunearen bitartez eros daiteke.